

Mahai negoziatzailea 2021-05-10

Hezkuntza saileko garbiketa eta sukaldaritzako ordezkoen BIRMAREMAZIO prozesua:

- **Maiatzaren 23an** prentsan argitaratuko da
- **Maiatzaren 24tik ekainaren 18ra** (biak barne) aldaketak egiteko epea, **telematikoki egin behar da**, <https://irakaslegunea.euskadi.eus/eu/>
- **Barematuko den epea**: 2020ko apirilaren 17tik 2021eko apirilaren 16a arte (biak barne).
- Ekainaren 25ean **behin-behineko zerrenda** argitaratuko da.
- Ekainaren 26tik uztailaren 3ra **erreklamazioak** aurkezteko epea
- Uztailaren 15ean **behin betiko zerrendak** argitaratuko dira.

Eskaera nola egin behar den jakiteko **gida** argitaratuko da eta ikastetxeetara zirkular bat bidaliko dute behar izanez gero, ordenagailuak eta izapidea egiteko laguntza emateko eskatuz. Aldaketarik egiten ez duenak lehengo birbaremazioko lanaldia eta eremuaren aukeraketa mantenduko ditu.

Hitzarmen kolektiboaren Negoziazio-mahaia eratzeko proposamena

LAB sindikatuak behin eta berriro eskatuta, atzo, Hezkuntza sailak gainontzeko kolektiboetan egin duen bezala, garbitzaile eta sukaldarien lan hitzarmen berria negoziatzeko mahaiaren eraketa, metodologia eta egutegia proposatu zituen.

LAB, UGT eta CCOOek 2009ko lan hitzarmena sinatu genuen. 2018an, irakaskuntza publikoko gainontzeko kolektiboekin batera, borroka eta greba dinamikaren ondoren LABek, lan baldintzak hobetu eta lan zamak arinduko zituen Akordioa sinatu genuen UGT eta CCOOekin batera -hauek mobilizazio dinamika egin gabe-. Akordioan oposaketa eta egonkortasunaren puntua ere sinatu zen. Alderdiek akordioa hitzarmen global berriaren abiapuntu gisa sinatu genuen. Besteak beste, negoziazio kolektiboaren bitartez lanpostuen kontsolidaziorako tresnak adosteko bidea izango zena.

LAB itxaropenez joan zen atzoko negoziazio mahaira, lan-baldintzen hobekuntzan aurrera egiteko aukera emango zigutelakoan. Garbiketako eta sukaldeko lan zamak jaitsi, funtzioak zehaztu, ratioak eta metrajeak jaitsi, lan-osasuna, formakuntza, soldata hobetu... lan hitzarmen berriaren bidez hobetzeko aukera genuelako.

LAB lan hitzarmen berrirako administrazioak egin duen egutegi eta metodologiaren proposamenaren gainean ekarpenak egiteko prest agertu da, egutegian, lehenengo, oposaketa prozesuari buruzko mahai teknikoaren burutzea proposatuz, bertan kontsolidazio prozesua adostu behar delarik. Baina ELA, UGT eta CCOO sindikatuek momentuz uko egin diote lan hitzarmen berria negoziatzeko proposamenari, lehenetsuna enpleguaren gaiak duela argudiatuz.

LABek esan zuen batak ez duela bestea kentzen, eta paraleloki negoziatzea proposatu zuen. LABen iritziz, enplegua hobetzeko integraltasunari heldu behar zaio: aldi baterako kontratuen iruzurrarekin bukatu eta RPTan lanpostu horiek estruktural bilakatzea, kontsolidazio prozesua negoziatzea eta lan baldintzei loturiko puntu guztiak negoziatzea.

Beraz, gainontzeko sindikatuek momentuz lan hitzarmen berria negoziatzea baztertu dutenez, ekainaren 18ko mahai teknikorako Administrazioak plantillaren egungo datuak (adina, profilak, titulazioak,...) ekarriko ditu, Enplegu Publikoaren Eskaintzaren gaia lantzen hasteko. Administrazioak egun kontsolidazio prozesurako berme juridikorik ez duela gogorarazi du administrazioak, hala ere, 2021eko abenduaren 31a baino lehen aterako den plaza kopurua eskaini behar da.

Zein da kolektibo feminizatu eta prekarioenaren lan hitzarmenaren negoziazioa blokeatzeko arrazoa? Zergatik soilik kolektibo honetan blokeatu dute negoziazioa? LABek negoziazioa irekitzeko ahalegina egiten jarraituko du eta lanpostuen kontsolidazioa eta langileen egonkortasun kolektiboari egokitutako prozesua izan dadin lanean jarraituko du, apirilaren 22ko sektore publikoan, garbitzaile eta sukaldarietan jarraipen zabala izan zuen greban argi esan genuen bezala.

• **Beste gai garrantzitsu batzuk:**

Ordezkapenak egiteko izendapenik ez dagoela salatu dugu. Arazoa ordezkartzetan dagoen pertsonal falta dela onartu dute eta pertsonal gehiago jarriko dutela. Bitartean, ikastetxeetan ezin dugu errealitatea ezkutatu, falta diren langileen lana eginez. Ordezkapenak ez direla betetzen ikusarazi behar dugu.

Baimenen eta lizentzien eskaerak egiteko epea, 7 egun natural lehenago eskatu behar dira:
<https://www.euskadi.eus/lizentziak-eta-baimenak/web01-a3hklaei/eu/>.

Senideen gaixotasun larriagatiko eta heriotzagatiko baimena aldatzen da :

https://www.euskadi.eus/contenidos/enlace/permisos_adequacion_ebep/eu_def/adjuntos/Instruccion_05_05_2021_adequacion_normativa_ebep_e.pdf

Edozein zalantza izanez gero jarri gurekin harremanetan konfiantza osoz

Mesa negociadora 10-05-21

Proceso de rebaremación del personal de sustituciones de limpieza y cocina del Departamento de Educación:

- El 23 de mayo se publicará en prensa
- El plazo de petición modificaciones del 24 de mayo al 18 de junio, ambos inclusive, deberá realizarse telemáticamente en <https://irakaslelegunea.euskadi.eus/es/>
- Plazo a rebaremar: desde el 17 de abril de 2020 hasta el 16 de abril de 2021 (ambos inclusive).
- El 25 de junio se publicará la lista provisional.
- Plazo de reclamaciones del 26 de junio al 3 de julio
- El 15 de julio se publicarán las listas definitivas.

Se publicará una guía de cómo realizar la solicitud y se enviará una circular a los centros para si fuera poner a disposición ordenadores para el personal y si fuera necesario solicitando ofrecer ayuda para la realización de la tramitación.

Quien no realice cambios mantendrá la jornada y la selección de la zona de la rebaremación anterior.

Propuesta de constitución de la mesa negociadora del convenio colectivo

A petición reiterada del sindicato LAB, ayer, al igual que ha hecho el departamento de Educación en el resto de colectivos, ayer propuso la constitución de la mesa negociadora, metodología y calendario para negociar el nuevo convenio laboral del colectivo de limpieza y cocina.

LAB, UGT y CCOO firmamos el convenio en vigor en 2009. En 2018 LAB, después de una larga dinámica de lucha y huelgas firmamos un Acuerdo que mejoraría las condiciones laborales y aliviaría las cargas de trabajo, junto con UGT y CCOO – sin que estos secundaran la dinámica de movilizaciones-. También se firmó el punto de estabilidad del personal con una oposición de consolidación. Las partes firmamos el acuerdo que sería el punto de partida del nuevo convenio laboral global. Entre otros el que sería la herramienta a través de la negociación colectiva de consensuar el camino para la consolidación de plazas.

LAB acudió a la mesa de negociación de ayer con la esperanza de que poder trabajar en la mejora de las condiciones laborales, bajar las cargas laborales en limpieza y cocina, mejorar las funciones, bajar los ratios y metrajés, la salud laboral, la formación, mejora salarial,..... a través del nuevo convenio laboral.

LAB se mostró dispuesto a hacer aportaciones a la propuesta de calendario y metodología que ha hecho la Administración para el nuevo convenio, proponiendo que en el calendario se lleve a cabo en primer lugar una mesa técnica para trabajar sobre el proceso de oposiciones, en la cual se deberá consensuar el proceso de consolidación. Pero los sindicatos ELA, UGT y CCOO han rechazado de momento la propuesta de negociar el nuevo convenio, argumentando que la prioridad es el tema del empleo.

LAB dijo que una cosa no quita la otra y propuso negociar paralelamente. En opinión de LAB, hay que tratar de manera integral el tema del empleo: acabar con el fraude de las contrataciones temporales, y transformar esos puestos en la rpt como estructurales, negociar el proceso de consolidación y negociar todos los puntos relacionados con las condiciones laborales. .

Por lo tanto, dado que el resto de sindicatos han rechazado por el momento negociar el nuevo convenio, para la mesa técnica propuesta por LAB, el 18 de junio la Administración aportará los datos actuales de la plantilla (edad, perfiles, titulaciones, etc.) para empezar a tratar el tema de la Oferta Pública de Empleo. La Administración recordó que actualmente no tiene garantías jurídicas para el proceso de consolidación, pero que hay que concretar el número de plazas que saldrán antes del 31 de diciembre de 2021..

¿Cuál es la razón para bloquear la negociación del convenio laboral del colectivo más feminizado y precario? ¿Por qué sólo en este colectivo han bloqueado la negociación del convenio? LAB va a seguir intentando abrir la negociación y va a seguir trabajando para que la consolidación de los puestos de trabajo y la estabilización sea un proceso adecuado al colectivo., como ya dijo en la huelga realizada en el sector público y también en este colectivo el 22 de abril, con un amplio seguimiento en cocina y limpieza.

• Otros temas importantes:

Hemos denunciado que no **hay nombramientos para hacer sustituciones**, admiten que el problema está en la falta de personal en las delegaciones y que van a poner más personal. Mientras tanto, en los centros no podemos ocultar la realidad haciendo el trabajo de las trabajadoras que faltan. Tenemos que hacer ver que las sustituciones no se cubren.

Solicitud de permisos y licencias; <https://www.euskadi.eus/licencias-y-permisos/web01-a3hklaei/es/> se seguirá solicitando con 7 días naturales de antelación.

Se modifica el permiso por enfermedad grave y fallecimiento de familiares

https://www.euskadi.eus/contenidos/enlace/permisos_adequacion_ebep/es_def/adjuntos/Instruccion_05_05_2021_adequacion_normativa_ebep_c.pdf

Ante cualquier duda no dudéis en poneros en contacto con nosotras con total confianza